

WTXU 6, 2004-IX-15  
461 2K

# Auzoz auzo

A2062

## Herrera



Argazkian, iaz Euskal Ligan aritu zen jubenil mailako taldea

**200dik gora  
mutil ari dira  
Herrerako klubean**

tan, adibidez, garaikur bat baino gehiago irabazi dute; 1999an infantiletan eta 2001 eta 2003an alebinetan txapel-dun izan zen Herrerako Sporting. Bestalde, gurean, urtero jokutzen den Donosti Cup-en ere lortu izan dituzte garaipenak Herrerako futbolari gazte-ek.

# Denboraldiari ekiteko prest

**Poliki-poliki futbol denboraldia martxan jartzen ari da maila guztietan. Herrerako Sporting klubeko bederatzi taldeak duela hilabete inguru hasi ziren entrenatzen. Taldeotako bik asteburuan jokatu dute denboraldiko lehen partida.**

### Ditxosozko errepeidea

Golak sartzearekin lotura zu-zenik ez badu ere, Sporting-ek badu beste nahi bat aurtengo denboraldirako. "Behingoz Herrerako futbol zelaira doan errepeidea zabal dezatela nahi genuke, oso estua baita. Autobusek ezin dute zelaira iritsi eta futbolariak oinez igo behar izaten dute ezinbestean", diote.

### Garikoitz Etxeberria

**H**errerako futbol zelaira gerturatzen den orok antzemango du Izarren Ligan ez ezik, beste maila guztietan ere oporrak aspaldi bukatu zirela. Asteak dira Herrerako Sportingeko taldeak arratsaldero jo eta su dabiltzala, denboraldia sasoi betean has-teko. 2004-2005 denboraldian, Herrerako klubeko bederatzi talde lehiatuko dira: hiruna jubenil eta kadete mailan, bi infantiletan, eta bat alebin mailan. Guztira, 200dik gora mutil ikusiko ditugu aurten elastiko hori-beltzarekin. Bertako talde nagusia Euskal Ligan ari den jubeniletako taldea da. Klubeko presidente Miguel Angel Diez mintzatu zaigu talde honi buruz: "Iaz lanak izan genituen Euskal Ligan eusteko, baina aurten mai-

*laz igotzea dugu helburu, Realeko, Athleticeko edota Alaveseko jubenil mailako taldeekin lehiatu ahal izateko". Talde honek abuztuaren 2an ekin zien entrenamendu saioei, eta larunbatean, hilak 11, jokatu du aurtengo denboraldiko lehen neurketa, Getxoko Zugazarte taldearen kontra. Partida Herreran izango da, 17:30ean. Kadete mailako talde nagusia ere —honek ere Euskal Ligan dihardu— asteburu honetan ekingo dio denboraldiari, Santutxuren zelaian.*

### Etxetik kanpo ere ezagun

Herrerako Sporting talde eza-guna da Gipuzkoan. Ez da gutxiagorako, izan ere, 1959an sortu zen. Bost urte barru, beraz, urrezko ezteiak egingo ditu. Herrerako harrobitik joka-

lari bikainak atera dira. Hala nola, Murillo anaiak, Bittor Alkiza, edota aurten Valladoliden ari den Aritz Aduriz gaztea. Dena dela, Gipuzkoatik kanpo ere badute klubaren berri. Gironako Lloret de Mar herrian jokatu ohi den Travel Sport nazioarteko txapelke-



Sportingek zenbait garaikur irabazi zituen iazko Travel Sportnazioarteko txapelketan

## Argitalpen honen edizioan lankide:



**kutxa**  
gizarte ekintza